

## Un presupuesto contenido, ajustado a los gastos del año pasado y acorde con los tiempos que corren

Con motivo de la aprobación el pasado 17 de diciembre de las cuentas de 2009, actualmente sometidas a exposición pública, emitimos esta hoja informativa a todos los vecinos y vecinas de Lezama. El Presupuesto de este año asciende a 2.725.607,32 €, un punto por encima del 08. Son cuentas ajustadas al máximo tomando como referencia el gasto del año pasado, y un incremento estimado del IPC4%, aunque al cierre del ejercicio se prevé que sea menor teniendo en cuenta que el IPC interanual a noviembre es del 2,4%. Algunos datos destacables:



### Programas funcionales con mayor peso en el presupuesto para 2009

- Administración General (16,68%)
- Promoción y Difusión de la Cultura (15,98%)
- Urbanismo y Arquitectura (12,81%)
- Recogida de Basuras y Limpieza Viaria (9,69%)



### Ingresos

- **Impuestos:** la previsión de los Imp. Directos (IBI, IVTM, IAE...) supone el 13,95% de los ingresos, 380.226,33€, en cuanto a los generados por el impuesto de construcciones, instalaciones y obras asciende a 197.000 €
- **Ingresos por tasas:** Se ha realizado con arreglo a la recaudación efectiva del ejercicio 2008, y se ha visto reducida por la congelación de tasas municipales como la recogida de basuras o las instalaciones deportivas.
- **Trasferencias corrientes:** Es el capítulo con mayor peso en el presupuesto de ingresos, este año es un 6% menor, 118.967€ que en 2008 debido a la menor previsión de entregas a cuenta en concepto de tributos concertados (Udalkutxa).



### Gastos

- **Personal:** Aumenta en 32.326 € con respecto al 2008 por el incremento de retribuciones del IPC más un punto recogido en el convenio Udalhitz 2008-2010 firmado por EUDEL y los sindicatos mayoritarios de Euskadi en el cual se acuerdan las condiciones de los trabajadores de las instituciones locales vascas, y que en la parte retributiva afecta a funcionarios, personal laboral, alcalde y cargos liberados.
- **Compra de bienes corrientes y servicios:** Se contiene el gasto en este capítulo aminorando principalmente el gasto de trabajos realizados por empresas subcontratadas.
- **Transferencias corrientes:** Destaca la transferencia a la Mancomunidad de Servicios Txorierrri, con una previsión que supera los 500.000 €, redundando en la prestación de servicios como la recogida y gestión de residuos (261.382,75€), servicios sociales y prevención de drogodependencia (66.339,75€) o empleo y juventud. Se contempla también la partida de ayuda a la cooperación y el desarrollo, 18.664,85€, el 0,7% de los ingresos corrientes del presupuesto.
- **Inversiones:** La previsión total de este capítulo es de 511.838,51€.
  - Continúan los proyectos de mejora y adecuación de caminos rurales (40.000€) o el Plan de Reposición de la red de abastecimiento de agua (147.638,51 €).
  - Destaca la instalación del ascensor en el Ayuntamiento (60.000 €), siguiendo criterios de accesibilidad y movilidad, lo que facilitará el acceso al consistorio.
  - Obras importantes en la parcela junto a los bloques del barrio de La Cruz: acondicionamiento del terreno para aparcamiento, acceso a rotonda y juegos infantiles (132.000 €), para el disfrute y la mejora en la calidad de vida de los vecinos.
  - Reposición de red de abastecimiento de servicios de agua y gas (100.000 €) en la nueva acera de unión entre Lezama y La Cruz, obra que la Diputación Foral de Bizkaia prevé acometer en 2009.
  - Equipamiento de Uribarri Topalekua (20.000 €), que abrirá a principios de año.

Aunque el presupuesto no haga referencia al Proyecto de la Plaza Hilario Astorki, se va a acometer a lo largo del año para lo cual se va a acceder al Fondo Estatal de Inversiones Municipales aprobado por el Gobierno Estatal.

**Seguiremos informando**



# lezama

# gaur

2009ko Aurrekontuen  
gaineko ale berezia

2009ko Urtarrila

## Aurrekontu neurritsua, iazko gastuen araberakoa eta garai hauekin bat datorrena

Joan den abenduaren 17an 2009ko kontuak onartu ostean (gaur egun, jendaurrean daude), informazio-orri hau bidaltzen dizuegu Lezamako bizilagun guztioi. Aurtengo aurrekontua 2.725.607,32 €-koa da, 2008ko aurrekontua baino puntu bat gehiagokoa. Ahalik eta gehien doitutako kontuak dira, eta iazko gastua hartu da erreferentzia gisa. KPIren hazkunde zenbatetsia %4koa izan arren, aurreikuspenen arabera, ekitaldiaren itxieran txikiagoa izango da, kontuan izanda azarora arteko urte arteko KPI %2,4koa izango dela. Zenbait datu aipagarri:



### 2009rako aurrekontuan pisu handiagoa duten programa funtzionalak

- Administrazio Orokorra (%16,68)
- Kulturaren Sustapena eta Hedapena (%15,98)
- Hirigintza eta Arkitektura (%12,81)
- Zabor bilketa eta kaleen garbiketa (%9,69)



### Diru-sarrerak

- **Zergak:** Zuzeneko Zergen (OHZ, TMIZ, JEZ...) aurreikuspena diru-sarreraren %13,95 da, hau da, 380.226,33 €. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak, berriz, 197.000 €-koak dira.
- **Tasengatiko diru-sarrerak:** 2008ko ekitaldiaren diru-bilketa efektiboaren arabera egin dira, eta zenbait udal tasaren (besteak beste, zabor bilketa eta kirol instalazioak) izozketagatik murriztu dira.
- **Transferentzia arruntak:** diru-sarreraren aurrekontuan pisurik handiena duen atala da; aurtengoa, 2008koa baino %6 txikiagoa da: 118.967 €, alegia. Horren arrazoia da itundutako zergen (Udalkutxa) kontzeptupean dauden konturako sarreraren aurreikuspena txikiagoa dela.



### Gastuak

- **Langileak:** 2008ko zenbatekoarekin konparatuta, 32.326 € gehiagokoa da, KPIren gehi puntu bateko ordainsariaren hazkundeagatik. Halaxe dago jasota EUDELeK eta Euskadiko sindikatu nagusiek sinatutako Udalhitz 2008-2010 hitzarmenean. Bertan, Euskadiko tokiko erakundeen langileen baldintzak zehazten dira, eta, ordainsarien arloan, funtzionario, langile, alkate eta liberatuei dagokie.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak:** atal honetako gastuari eutsi egin zaio, eta, batez ere, azpikontratutako enpresek egiten dituzten lanen gastua murriztu da.
- **Transferentzia arruntak:** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari egindako transferentzia nabarmendu behar da, 500.000 €-tik gorako aurreikuspenarekin. Zenbait zerbitzuren alde egin da; besteak beste, hondakinen bilketa eta kudeaketaren (261.382,75 €), gizarte zerbitzuen eta drogamenpekotasunen prebentzioaren (66.339,75 €) edo lan eta gazteriarren alde. Lankidetzeta eta garapenerako laguntzaren partida ere jaso da, 18.664,85 €-rekin; hau da, aurrekontuaren diru-sarrera arrunten %0,7.
- **Inbertsioak:** Atal honen aurreikuspen osoa 511.838,51 €-koa da.
  - Aurrera jarraitzen dute landa-bideen hobekuntza eta egokitzapenerako proiektuak (40.000 €) eta ur-hornidura sarea Berritzeko Planak (147.638,51 €).
  - Aipatzekoa da udaletxean igogailua jarri dela (60.000 €), irisgarritasun eta mugikortasun irizpideei jarraituz. Modu horretan, errazagoa izango da udaletxera sartzea.
  - Lan garrantzitsuak Kurtzea auzoko blokeen ondoko partzelan: lursailaren egokitzapena aparkalekua egiteko, biribilgunerako sarbidea eta umeentzako jolasak (132.000 €), herritarron bizi-kalitatea handitzeko asmoz.
  - Lezama eta Kurtzea arteko espaloi berrian ur eta gas zerbitzuen hornidura-sarea berritzea (100.000 €). Lan hori 2009an egingo du Bizkaiko Foru Aldundiak.
  - Uribarri Topalekuaren ekipamendua (20.000 €). Urte hasieran zabalduko da.

Aurrekontuak Hilario Astorki Plazaren Proiektuari erreferentziarik egiten ez dion arren, proiektu hori urtean zehar garatuko da. Horretarako, Estatu Gobernuak Udal Inbertsioetarako daukan Estatu Fondoa erabiliko da.

**Jarraituko dugu informatzen**